

ERROLDA

Haur, nerabe eta
gazteen sustapeneko
profesionalak
Gipuzkoan
2022



www.gipuzkoangazte.eus

Aurkibidea

0. Sarrera	3
1. Datu orokorrak	4
2. HNGekin lan egiten duten hezitzaile eta begiraleak	6
3. Suspertzaileak	8
4. Gazteria edo sustapen teknikariak	10
5. Beste udal langile tekniko eta administratiboak	11
6. Sustapeneko profesionalak datuetan	13
7. Azken hamarkadako bilakaera	14

0 Sarrera

Legegintzaldiz legegintzaldi, Gipuzkoako udal nahiz foru administrazioan haur, nerabe eta gazteen sustapenean lan egiten duten langile kopuruaren jarraipena egin izan da Gaztematikan, baina oraingoan errolda eguneratu eta sakonago deskribatu nahi izan dugu, **Gipuzkoan haur, nerabe eta gazteen sustapenean lan egiten dugun profesionalon kolektiboa dimentsionatu eta ezagutzeko**. 2022ko udazkenean ereindako hazietatik 2023ko udaberrian jasotako uzta da eskuartean duzuna.

Uzta berria bai, baina ez aurrenekoa, Gaztematika sareak hasieratik izan baitu sektoreko profesionalak ahalduntzeko borondatea, eta hainbat lanketa egin izan baitira langileen baldintzak ezagutu eta lanpostu horietarako beharrezko gaitasun eta prestakuntza definitzeko ere. 2011n osatu eta aztertu zen lehen aldiz “Gipuzkoako udaletan sustapen ardura duten langileen errolda”.

Gipuzkoako 88 udalerrietatik 76 daude Gaztematika sarean aurten. Beste hamabi udalerririk saretik kanpo daude¹, eta bertan sustapenean jarduten duten langileak izan arren, ez dira azterketa honetan txertatu. Nolanahi ere, sareak, eta datuok, **lurraldearen %97ko estaldura** bermatzen dute.

Sareko hiru udalerritan ez dago sustapeneko ardura duen langilerik; hortaz, 73 udalerritan banatzen dira identifikatutako profesionalak. Bestalde, hemen jasotzen diren langileak **urte edo ikasturte osoan sustapenean lan egiten dutenak** dira. Hortaz, eskola oporraldietako eskaintza bermatzeko (udaleku irekiak, udaleku itxiak, etab.) administrazioek behin behinean kontratatzen dituzten begirale eta zuzendariak ez dira aintzat hartu.

Lan hau osatzeko, Aldundiko gazteria zuzendaritzak kudeatzen duen *Gaztesare* datu-basearen eguneratzean indar berezia jarri da eta garbiketa handia egin da. Horri esker, aparteko bilketa edo galdetegirik gabe, datu-basetik atera da azterketarako informazioa. Dokumentu honetan agertzen diren datu eta grafiko guztiak datu base horretatik abiatuta Bulego Teknikoak eginak dira beraz.

¹ Gipuzkoako 12 udalerrri hauek daude Gaztematikatik kanpo 2022an: Lezo, Mutriku, Getaria, Antzuola, Asteasu, Legorreta, Berrobi, Gabiria, Hernialde, Zerain, Lenitz-Gatzaga, Gaintza.

Kolektiboa osatzen duten talde edo lanbideak honela bereizi dira:

- [Hezitzaile eta begiraleak](#)
- [Suspertzaileak](#)
- [Gazteria edo sustapen teknikariak](#)
- [Beste langile tekniko eta administratiboak](#)

Datuen ustiaketaren emaitzak aurkezten ditu dokumentu honek; aurrena lurralde mailako [datu orokorrak](#), ondoren profesional talde bakoitzari dagozkion ezaugarriak, eta amaitzeko [datuen sintesi taula](#) eta azken hamarkadan izandako [bilakaera](#) edo aldaketa nagusiak.

1 Datu orokorrak



2022 urtearen amaieran, **Gaztematika sareko kide diren foru eta udal administrazioetan eta beren ardurapeko zerbitzuetan**, haur, nerabe eta gazteen sustapenean lan egiten duten **358 profesional** daude, 73 udalerritan banatuak.


21 langilek Foru Aldundiarentzat egiten dute lan, eta beste 337ek udal administrazioetan eta hauen ardurapeko zerbitzuetan.

239 hezitzaile eta begirale
9 suspertzaile
89 gazteria edo sustapen teknikari
21 bestelako langile tekniko eta administratibo

Profesional horietatik % 76 emakumezkoak dira, eta % 24 gizonetzkoak.

Batez besteko adina, 37 urtekoa da. Salbuespenak salbuespen, hezitzaile eta suspertzaileak beste lanbideetakoak baino gazteagoak dira.

 % 76 emakumezkoak
 % 24 gizonetzkoak




Sustapeneko lanpostu gehienek (% 87) euskarako 3. hizkuntza eskakizuna dute esleitua (EGA edo C1). Profil hori duten langileak gutxiago dira (% 84), baina hori gorantza orekatzen da, 4. hizkuntza eskakizuna duten langileen kopurua (% 8) eskatzen dena baino altuagoa baita (% 5).

Lanpostu hauen banaketa geografikoak Gipuzkoako biztanleria osoarenarekin bat egiten du oro har, baina badira bi salbuespen.

+ Debagoienak Gipuzkoako 30 urtez beherako biztanleriaren %8 biltzen du, eta sustapeneko profesionalen %16. Haur nerabe eta gazteen aldeko apustu argia egin dute beraz bertako udalek.

- Donostia eta Bidasoaldan aldiz, bertako biztanleriarekiko proportzioan, profesional gutxiago ari dira haur nerabe eta gazteen sustapenean lanean.



Profesional kopurua

2 Haur, nerabe eta gazteekin lan egiten duten hezitzaile eta begiraleak

239	177 hezitzaile	Haurtxoko eta Gaztelekuetan aurrezurreko arreta ematen dute.
	44 begirale	Haurtxoko eta Gaztelekuetan aurrez aurreko arreta ematen dute.
	18 koordinatzaile	Zerbitzu bakoitzeko hezitzaile edo begirale taldeen koordinazioaz arduratzen dira. Horrez gain hezitzaile funtzioa ere izan dezakete.

Talde honetako langileak beren osotasunean izendatzeko, “hezitzaile” izena erabilikoa da, zentzu generikoan.

239 hezitzaileetatik zazpi **administrazio langileak** dira, zuzenean udalek kontratatuak alegia. EAeko udal langileen lan hitzarmenean kokatzen dira langileok. Gainerako hezitzaileak aldiz, haurtxoko eta gaztelekuak kudeatzen dituzten **elkarte edo enpresetako langileak** dira eta Gipuzkoako esku-hartze sozialeko lan hitzarmenean kokatzen dira. “Hezitzaile” postuetan daudenek hitzarmeneko 2. taldeari dagozkion funtzio eta lan baldintzak dituzte oro har, eta “begirale” postuetan daudenek 4. taldeari dagozkionak.

Hezitzaileen hiru laurdenak emakumezkoak dira eta laurden bat gizonezkoak.

Gazteenak 20 urte ditu eta zaharrenak 63. Batez besteko **adina**, 31 urtekoa da.

Formakuntzari dagokionean, zortzi hezitzailek batxilergoa bitarteko ikasketak dituzte, 31k goi mailako heziketa zikloren bat egin dute, 166k unibertsitateko gradua dute, eta 34k unibertsitateko masterra.

Hezitzaileen ikasketa alorrari buruzko informazio partziala dugun arren (%83k zehaztu du), haur nerabe eta gazteen sustapenarekin lotura duela nabarmena da:

Kopurua	Ikasketa alorra	Titulazio maila ohikoena
%45	Hezkuntza	Unibertsitate-gradua
%33	Gizarte lana	Unibertsitate-gradua
%10	Giza eta gizarte zientziak	Lizentziatura / Masterra
%7	Lotura zuzenik gabekoa	(denetik)
%5	Kirola eta jarduera fisikoa	Unibertsitate-gradua

28 hezitzailek dute **lanaldi** osoko kontratua sustapen zerbitzuetan; gehienek hiri handietan lan egiten dute edo eta koordinazio ardurak dituzte. 138k %50 eta %80 arteko lanaldia dute. 73k lanaldi herena edo gutxiago dute sustapenean. Begirale gehienak azken talde honetan kokatzen dira. Hezitzaile taldean, arduraldiaren irakurketa lan egiten duten zerbitzuko hartzaileen arabera egiten da, adinaren arabera alegia.

ARDURALDIA:

102 hezitzailek **hurrekin** egiten dute lan, arduraldi osoz.

104 hezitzailek **nerabeekin** egiten dute lan, arduraldi osoz.


30 hezitzailek haur nahiz nerabeekin egiten dute lan, zerbitzu desberdinetan edo parte-hartzea sustatzeko zerbitzu baten baitan (**PSZ**).

3 hezitzailek **gazteekin** egiten dute lan, arduraldi osoz.

Batez besteko **antzinatasuna** sei urtekoa da. Hala ere batez besteko hau ez da talde homogeneo baten adierazle; antzinatasun mediana² bost urtekoa da, eta maximoa 33 urtekoa. Batetik hezitzaile “beteranoak” ditugu, batez beste 38 urteko adina eta hamaika urteko antzinatasuna dutenak (hogei urtetik gora lanean daramaten zortzi hezitzaile ditugu sarean); eta bestetik hezitzaile gazteagoak, batez beste 27 urteko adina eta bi urte eta erdiko antzinatasuna dutenak.


Hizkuntza gaitasunei

dagokienean, lanpostu hauen %90ean C1 euskara maila eskatzen da, %3an B2a eta %8an ez da diplomarik eskatzen, hizkuntza menperatzea baizik. Azken kasu honetan, udalerrri gehien-gehienek C1 mailaren pareko ahozko gaitasuna eskatzen dute, baina idatzia egiaztatzerik ez. Hezitzaileen gaitasuna eskakizunaren oso parekoa da.



² Serieko balioak txikienetik handienara ordenatuta erdia non dagoen adierazten du medianak. Hortaz, hezitzaile taldearen erdiak (120 langile) bost urte edo gutxiagoko antzinatasuna du.

Hezitzaile eta begiraleen **banaketa geografikoak** Gipuzkoako 30 urtetik beherako biztanleriarenarekin bat egiten du oro har, baina Debabarrena eta Debagoienak ordezkari zabalagoa dute. Gazteen %7 eta %8 biltzen dute hurrenez hurren eskualde horiek, aldiz hezitzaileen %12 eta %22.



3 Suptertzaileak


Hirietan haurren eta nerabeen sustapenerako zerbitzu eta ekipamendu bereziak daude. Herri txikiagoetan, ordea, zaila da adin tarte bakoitzari zerbitzu propio bat eskaintzea. Behar horri erantzunez definitu zen Gaztematikan herriko haur, nerabe zein gazte guztiei zerbitzu bateratua emateko borondatea duen Partehartzea Sustatzeko Zerbitzu eredu (PSZ). Eredu horren oinarria, aldi berean sustapen teknikari nahiz hezitzaile funtzioak betetzen dituen “suptertzaile” figura da; profesional horiek dira hemen aurkezten direnak.

9 dira udalerrri batean, aldi berean, sustapen teknikari eta hezitzaile funtzioak betetzen dituen profesionala.

Profesional hauetatik lau **administrazio langile edo funtzionarioak** dira, bost aldiz zerbitzuak kudeatzen dituzten **elkarte edo enpresetako langileak** dira.

Gizonezko batek eta zortzi emakumezkoak osatzen dute profesional talde hau.

Batez besteko adina, 34 urtekoa da, baina erdiek 26 urte edo gutxiago dituzte.



Formakuntzari dagokionean, langile hauen herenak unibertsitateko masterra du, eta beste bi herenek gradua. Erdiek gizarte lanarekin lotutako ikasketak dituzte, gizarte hezkuntzako gradua hain zuzen.


Hiru suspertzailek dute **lanaldi** osoko kontratua. Lauk %70 eta %80 arteko lanaldia dute, eta beste bik lanaldi erdia.

Lanaldia gora behera, sei suspertzailek **arduraldi** osoz lan egiten dute haur, nerabe eta gazteen sustapenean. Hala ere, badira bi suspertzaile, administrazio langileak biak, sustapenez gain bestelako ardurak dituztenak; batek udal liburutegiaren ardura du eta besteak turismoarena. Beste suspertzaile batek gizarte zerbitzuetatik bideratutako esku-hartzeak egiten ditu sustapeneko hezitzaile lanez gain.

Batez beste zazpi urteko **antzinatasuna** dute suspertzaileek, baina adinari buruzko datutatik ondoriozta litekeen moduan, bi talde bereiz genitzake; batetik


Gaztematikan suspertzaile figura sortu zenean zerbitzu eredu hau martxan jarri zuten herrietan ari direnak (hamahiru urteko antzinatasuna batez beste), eta bestetik azken urteetan PSZ martxan jartzen hasi diren herrietakoak (urte eta erdiko antzinatasuna batez beste).

Lanpostu hauetarako eskatzen den **euskara** eskakizuna eta langileen gaitasuna nahiko orekatuak dira, baina langileetako batek eskakizuna baino maila baxuagoko titulua du.



Suspertzaileak herri hauetan daude egun: Aia, Amezketan, Anoeta, Berastegi, Elgeta, Errezil, Ormaiztegi, Zegama, Zestoa. Hiruna Tolosaldean eta Urola kostan, bi Goierri eta bat Debagoienan alegia.

Zestoa salbu, 2.500 biztanletik beherako herriak dira suspertzailea duten guztiak.




4 Gazteria edo sustapen teknikariak


89 dira beren lurraldeko haur, nerabe eta gazteen beharrak ezagutu eta politika publikoen bidez asetzen laguntzeko ardura dute. Horiei zuzenduriko zerbitzuak martxan jarri eta ebaluatzeko ardura dute, eta baita gazteriarri – gurasoak barne- loturiko gaiak gizarteratzekoa ere.

Teknikari hauen %81 **administrazio langile edo funtzionarioa** da, %19 aldiz administrazioek esleitutako zerbitzuak kudeatzen dituzten **enpresa pribatuetako langilea** (Gaztematikako komunikazio eta aholkularitza lanetarako Aldundiak kontratatutakoak adibidez). 68k udaletxeetan egiten dute lan eta 21ek Foru Aldundiarentzat.

Gizonek taldearen laurdena osatzen dute; hiru laurdenak emakumezkoak dira.

 % 75 emakumezkoak

Batez besteko **adina**, 49 urtekoa da. Lurralde eta toki mailako administrazioen artean ez dago apenas alderik adierazle honetan.

 % 25 gizonezkoak

Formakuntzari dagokionean, teknikari funtzioak betetzen dituzten langile hauen %60ak unibertsitateko lizentziatura edo masterra du, %36k gradua. Salbuespen moduan hiruk batxilergoa bitarteko ikasketak dituztela aipa liteke.

Teknikari gehienek, 69k zehazki, **lanaldi** osoko kontratua dute. Multzo horretan sartzen dira Aldundiko guztiak (21). Lau teknikarik %60 eta %80 bitarteko lanaldia dute eta gainerako 17ek **lanaldi** erdiko edo gutxiagoko kontratua. Azken multzo honetan udalerrri txikietan lan egiten dutenak dira nagusi (gizarte langileak adibidez, hiru-lau herritan egiten baitute lan).


Goian aipatu bezala, lanaldiaz haratago, sustapenari ematen zaion arduraldi edo dedikazioan alde handia dago. Gipuzkoan, haur, nerabe eta gazteen **sustapenerako arduraldi osoa edo ia oso duten 41 teknikari** daude (%80<). Foru Aldundian eta 13 Udaletan daude profesional horiek, erdi eta erdi.

Gipuzkoako hamar udalerrri handienetatik seik dute arduraldi osoko gazteria teknikaria (Donostia, Irun, Zarautz, Arrasate, Hernani, Tolosa); Errenteria, Eibar, Lasarte-Oria eta Hondarribian, ordea, sustapenaren ardura duten teknikariek

beste alor batzuk kudeatzen dituzte lehentasunez edo maila berean (hezkuntza, kultura edo/eta kirola). 34 teknikarik bigarren mailako funtzio dute haur, nerabe eta gazteen sustapena (%50>).

Batez besteko **antzinatasuna** hamalau urte eskasekoa da teknikarien artean.

Udaletan nahiz Foru Aldundian haur, nerabe eta gazteen sustapen teknikari funtzioak betetzen dituzten ia lanpostu guztietan (%97) C1 edo C2 mailako **euskara** ziurtagiria eskatzen da. Profil hori betetzen duten langile kopurua erabat proportzionala da (%96), baina C2 maila eskatu baino langile dezentez gehiagok dute.



5 Beste udal langile tekniko eta administratiboak


Talde honetan udaletxeetan sustapen teknikariarekin batera gai hauetan lan egiten duten profesionalak bildu dira; administrariak eta informatzaileak. Aipatu behar da, hala ere, Gaztesaren jasoak ez dauden arren, toki nahiz lurralde mailako administrazio guztietan dagoela sustapen alorrean zama administratiboa, eta hemen azaltzen direnez gain, beste hainbat administrarik ere funtzio berak betetzen dituztela.

21	13 administrari	Sustapen sailaren kudeaketa administratiboa dute beren gain, batzuek arduraldi handiz, eta beste batzuek udal administrazio orokorraz gain.
	8 informatzaile	Gazte informazio bulegoetan (GIB) edo sustapen sailean egiten dute lan, gehienbat gazteei zuzendutako programak bideratzen edo eta komunikazioan.

Profesional hauen %62 **administrazio langile edo funtzionarioa** da, %38 aldiz zerbitzuak kudeatzen dituzten **elkarte edo enpresa pribatuetako langilea** da. Lehen multzoan administrariak dira bat ez beste guztiak, bigarren multzoan alderantziz, informatzaileak dira bat ez beste guztiak.

Gizonezko batek eta hogeit hamar emakumezkoak osatzen dute talde hau.

Batez besteko **adina**, 45 urtekoa da. Erdiek 47 urte edo gehiago dituzte hala ere.




Formakuntzari dagokionean, langile hauen %48ak unibertsitateko lizentziatura edo masterra du, %29k diplomatura edo gradua, %14ak goi mailako lanbide hezkuntza eta %10ak batxilergoa.

Udal langile tekniko eta administratiboen erdiak **lanaldi** osoko edo ia osoko (%80<) kontratua du. Bik %60-70 arteko lanaldia dute eta bederatzik lanaldi erdia edo gutxiagokoa. Aipatu behar da, hala ere, lanaldi erdia duten hainbat administrariaren kasuan, sustapenez gain beste alor bat ere kudeatzen dutelako dela eta hortaz, sustapenetik haratago irakurketa eginda, lanaldi eta soldata osoa dutela.

Informatzaile guztiak (8) **arduraldi** osoz ari dira sustapenean. Administrarien artean egoera heterogeneoagoa da. 500 biztanletik beherako herrietako administrariak (4), Gaztematikarako udal erreferenteak diren arren, udaleko administrazio orokorraren ardura dute eta sustapenari lanaldiaren hamarrena baino gutxiago eskaintzen diote. Hiri handienetan badira arduraldi osoz sustapen saileko administrazio lana egiten duten administrariak (7). Hala ere, administrari hauetako askok sustapenez gain beste sail batzuetako ardurak ere badituzte (hezkuntzarena adibidez); lanaldiaren eta arduraldiaren arteko irakurketa gurutzatu behar da datuok ongi ulertzeko. Sustapenean lanaldi eta arduraldi osoa dutenak 4 administrari dira.

Batez besteko **antzinatasuna** hamaika urtekoa da, baina langileen ia laurdenak hemezortzi urte edo gehiago daramatza lanpostuan.

Lanpustu hauei esleitutako hizkuntza eskakizunaren eta langileen gaitasunen artean desoreka dago. Langileen %90ak du **euskarako** C1 edo C2 ziurtagiria, postuen %95ean eskatzen den arren.



6 Sustapeneko profesionalak datuetan

		hezitzaileak	suspertzaileak	gazteria teknikariak	beste langile tekniko eta administratiboak
		hezitzaileak, begiraleak, koordinatzaileak	-	arduraldi osokoak nahiz partzialekoak	administrariak, informatzaileak
langile kopurua	358	239	9	89	21
sexua	emakumezkoak	74%	89%	75%	95%
	gizonezkoak	26%	11%	25%	5%
adina	batez bestekoa	31	34	49	45
	mediana*	30	26	50	47
	mini*	20	24	25	27
	maxi*	63	50	64	63
ikasketa maila	DBH / Batxilergoa	3%	0%	3%	10%
	Goi mailako hezkuntza	13%	0%	1%	14%
	Diplomatura / Gradua	69%	67%	37%	48%
	Lizentziatura / Masterra	15%	33%	58%	29%
lanaldia	%91-100	28	3	68	9
	%81-90	5		1	1
	%71-80	19	3		
	%61-70	19	1	1	1
	%51-60	43		2	1
	%41-50	52	2	5	6
%40 edo >	73		12	3	
sustapeneko arduraldia	%91-100		6	39	16
	%81-90			2	
	%71-80	hurrekin: 102 nerabeekin: 104 gazteekin: 3	1		
	%61-70			1	
	%51-60		1	3	
	%41-50	haur/nerabe partekatua: 30		8	
	%31-40		1	6	
%30 edo >			30	5	
antzinatasuna	batez bestekoa	6	7	14	11
	mediana	4	2	12	7
	mini	1	1	1	1
	maxi	33	16	39	34
langilearen euskara titulua	Ez du	4%	0%	0%	0%
	1. HE/ B1	0%	0%	1%	0%
	2. HE/ B2	4%	11%	2%	10%
	3. HE/ C1	91%	78%	70%	76%
	4. HE/ C2	1%	11%	26%	14%
lanposturako euskara eskakizuna	Ez da eskatzen	8%	0%	0%	0%
	1. HE/ B1	0%	0%	0%	0%
	2. HE/ B2	3%	0%	3%	5%
	3. HE/ C1	90%	100%	79%	90%
	4. HE/ C2	0%	0%	18%	5%

7 Azken hamarkadako bilakaera

Sarreran aipatu bezala, 2011n aztertu zen lehen aldiz Gipuzkoan haur, nerabe eta gazteen sustapenaren ardura duten langileen errolda. Hamabi urte pasa dira ariketa hartatik hona, eta beraz, sektoreak izan duen eboluzioa nolakoa izan den azter dezakegu. Hala ere, aldaketa nabarmenenak aipatu aurretik, bi edizioetan erabilitako informazio-iturriak ezberdinak izan direla aipatu behar da, eta hortaz, adierazleak ere ez direla erabat alderagarriak. 2011n ez zegoen sektoreko langileen datu base erabilgarririk eta sareko udal teknikariei egindako galdeketa edo elkarrizketen erantzunak izan ziren aztertutakoak. 73 profesional identifikatu ziren Gaztematika sareko udalerrietan, horietatik 60 sustapen teknikari funtzioak betetzen zituztenak. Azterketa 60 lanpostu horietan zentratu zen.

Oraingoan, funtzio eta lan kategoria ezberdinak izan arren haur, nerabe eta gazteen sustapenean lan egiten duten profesional guztiak identifikatu dira, udal nahiz foru administrazioetakoak, baita hauek azpi-kontratutako zerbitzuetakoak ere (hezitzaileak, begiraleak, informatzaileak). Sektorean, orotara 239 pertsonak lan egiten dutela identifikatu da honela.

Aldaketa nabarmenenak hauek izan dira:

- PSZ eredia oinarri hartuta zerbitzua eskaintzen duten herri kopurua handituz joan da. Zerbitzuak garatzen joan diren heinean, hasieran **suspertzaileek** hartutako teknikari eta hezitzaile funtzioak bereizten joan dira hainbat herritan. Horregatik, 2011n zeuden 7 suspertzaileen aldean 9 daude orain, baina 9 horietatik 5 azken hamarkadan sortutako lanpostuak dira, herri berrietan alegia.

- **Sustapen teknikariei** dagokienean ere kopuruak gora egin du. 2011n 58 teknikari identifikatu ziren udaletxeetan, eta orain 68. Bi kasuetan sustapenerako arduraldi osoa nahiz partziala dutenak zenbatu dira.

- Hala ere, **sustapenerako arduraldi osoa duten teknikarien** kopurua ez da hazi. 20 ziren 2011n (12 udalerritan) eta 21 2022an (13 udalerritan). Aldundiko gazteria atalean arduraldi osoko beste 21 lanpostu dauden arren, udaletako giza baliabideei dagokienean, ez da aurrerapausorik eman.

- Sustapen teknikari gehien-gehienak administrazio langile edo funtzionarioak diren heinean, batez besteko **adinak** eta **antzinatasunak** nabarmen gora egin dute.

- Teknikarien **sexuari** dagokionean ez da aldaketarik izan; atzo bezala, gaur ere emakumezkoak dira teknikarien %75.

2022



Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Sarea
Red de Promoción Infantil y Juvenil de Gipuzkoa